

## BI BELARRI DAUZKAT, HOBETO ENTZUTEKO

DENBORA: 4 ESKOLA-ORDU

### JARDUERAK

#### 1 Bortizkeriaren kultura: Gure eguneroko gatazkak

**Helburua:** Gatazken aurrean guk geuk ditugun jarrerak aurkitzea. Gatazka horiek konpontzeko, elkarrizketan eta elkarri entzutean saiatzea.

**Deskripzioa:** hasteko, ikasleei gogoeta eta zerrenda bat egitea eskatuko diegu, kontuan hartuz, telebistan ikusitako marazki bizidunetan sortzen diren gatazkak/arazoak ohiz nola konpontzen diren. (Laguntzea ondo baderitzogu, aldez aurretik grabaturiko irudi batzuk edo bideo-joko batzuk erakutsi ahal dizkiegu).

Ondoren, aurreko zerrendaren aldamenean, etxean bizi izandako gatazka batzuen zerrenda idatziko dute. Amaitu ondoren, zerrenda biltzeko paperean idatzi eta eskegi egin dezakegu: arbelean, adibidez. Gero, bi zerrenden emaitza ebaluatuko dugu, arreta jarritz bi kasuetan gatazkak berdin samar konpontzen ote diren. Jokabide bortitzak behatzen badira, saiatu alternatibak eskaintzen.

**Orientabideak:** Haserretzen garenean, joera bortitzak hartzen ditugu arazoak konpontzeko, Estatuaren artean edo estatu baten barruko talde armatuaren artean gertatzen den bezala. Horrelako kasuetan, lehen-lehenik komunikazioa gertatzen da urrututa: elkarri oihuka hasten gara, irainka eta ez diogu elkarri entzuten. Ebaluazioa egiteko, ondoko galdera hauek edo beste batzuk egin ahal ditugu: Zer sentitzen dugu lagun batekin haserretzen garenean? Zer egiten dugu egoera hori konpontzeko? Ba al dago beste modurik arazoa konpontzeko? Zer irabaziko genuke beste irtenbide hori aplikatuz?

**Proposamen osagarriak:** gelan sortzen diren gogoetatik abiatuz, gatazkak konpontzeko txokoa sortzea proposatu ahal dugu. Esan ohi denez, bi belarri eta aho bakarria daukagula, esaten dugunaren bi halako entzun ahal izateko. Beraz, sortutako txokoa, aho handi bat eta belarri are handiagoa jarriko ditugu; eta ikasleei proposatuko diegu, gatazkaren bat sortzen denean, txoko horretara joatea elkarrizketaren bitartez arazoa konpontzeko: hitz egin behar denean, ahoa hartuz, eta entzun behar denean, belarriak hartuz. Gainera, koadernoaren lehen orrian, ikasle bakoitzak bere burua marraz dezake aulki batean eserita.

#### 2 Etsaiaren irudia: arroz-platera

**Helburua:** Etsaiaren irudia ezabatu eta, haren ordean, elkarlanaren ideia sortzea, uste baita horixe dela alde guztientzako irtenbide egokiena.

**Deskripzioa:** Muturreko egoera bat deskribatuko dugu, non arroz-platera erraldoia daukagun (paper-bolak eginda irudika dezakegu). Taldea plateraren inguruan eseriko da, eta, gelako beste txokoa, koilara erraldoia, bizpahiru metrokoa. Halako batean, koilara hartu eta jateko agindua emango diegu.

**Orientabideak:** Ebaluazioa bideratzeko, honako galdera hauek edo beste batzuk egin ditzakegu: Nola sentitu zarete? Zer gertatu da hasieran? Nola ikusi dituzue gainerako ikaskideak, koilararen jabe egiteko lehiatu zaretenean? Agian, etsaiak balira bezala hartu al dituzue? Zergatik? Zerbait gogorarazten al dizue, agian eskolatik kanpo gertatzen den zerbait? Lortu al duzue denok jatea? Zuen iritziz, gertatzen al da inoiz horrelako zerbait eskola honetan? Erakutsi nahi duguna da, norberaren estrategiarik onena estrategia kolektibo txarrena izan daitekeela, eta, gainera, gure helburu berberak dituelako gurekin lehiatzen dena ez dugula zertan etsai modura hartu; luzera begira, estrategia egokiagoa bilaka daiteke guztiontzat harekin elkarlanean jardutea, kooperatzea. Etsaiaren irudia desegiteko modurik onena ikasleen arteko elkar ezagutza bultzatzea izan daiteke, gehiago delako batzen duena, bereizten duena baino.

**Argibide osagarriak:** 2. zikloko lan-koadernoan, koilara egiteko marrazki bat topatuko duzu. Hainbat gai erabil daitezke: egunkari-papera, zinta isologailua erabiliz, edo bi erratz-makila.

#### 3 Armen zama: neska eta munstroa

**Helburua:** segurtasuna eta askatasuna kontzeptuak lantzea. Armak erabiltzeko arrazoiak baloratu eta gatazkak konpontzeko bortizkeriarik gabeko irtenbideak proposatzea.

**Deskripzioa:** Ondoren, ipuin bat aurkeztuko dugu, zatika. Hezitzaileak zati bakoitza irakurri ondoren, galdera batzuk egingo ditu, eta arbelean idatziko ditu ikasleen erantzunak. Ondoren, irakurtzen jarraituko du.

*Duela urte asko, bazen izenik gabeko erresuma bat, zuhaitzez betetako mendi-puntan kokatuta. Egun batean, bi buruko munstro bat agertu zen.*

Zergatik sortu zen munstroa? Zer nahi zuen?  
Zure ustez, zer egin zuen erregeak?

*Bitxikeria hura ikusirik, erregeak munstroa hiltzea erabaki zuen, eta soldaduak bidali zituen haren bila.*

Zure ustez zergatik bidali zituen soldaduak?  
Zeren beldur zen?  
Arriskutsua al da munstroa? Ez dugu esan ahotik sua botatzen zuenik edo erpe ikaragarriak zituenik...

*Munstroak erasoei erasoka erantzuten ez zien arren, ez zen aski erresumako fusilak eta lantzak handik urruntzeko. Orduan, neska txiki bat, erregearen aginduari kasurik egin gabe —armak eskutan, etxean gordeta egotea agindu baitzuen—, munstroarengana hurbildu zen...*

Zuen ustez, zergatik agindu zien erregeak herritarrei etxean gordeta egotea?  
Ordura arte ba al zegoen motiborik ezkutatzeke?  
Seguruago al zeuden armatuta egoteagatik? Gogoratu munstroak ez ziela erasoei erantzuten.  
Zure ustez, zein izan zen neskaren erreakzioa?

... eta galdetu zion?:

—Barkatu, munstro jauna, zergatik etorri zara gure herriari traba egitera?

—Traba egitera?—erantzun zion munstroak harrিতuta—. Nik leku garai bat behar nuen, nire bi buruek kontu diezadaten araneke alde banatan zer gertatzen den.

—Horrela bada, zergatik ez nauzu zure buru batera igotzen eta bilatzen dugu lekuren bat gure herria mehatxatuta senti ez dadin, eta zuk arana ikus dezazun?

Eta horrela egin zuten.

Zer iruditzen zaizu neskaren ideia?  
Zure ustez, zergatik ez zen inor ausartu munstroarekin hitz egiten?  
Zure ustez, askotan jokatzeko al dugu izenik gabeko erresuma hartako biztanleek bezala?  
Noiz?

**Orientabideak:** Ipuina amaituta, beste galdera batzuk egin ditzakegu. Adibidez: Nola sentituko zinateke zu munstroa izan bazina? Ba al zegoen motiborik hari eraso egiteko? Zergatik ez zioten lehen galdetu zer nahi zuten? Arreta gaur egungo arazoetan jartzea komeni da: adibidez, askotan "kanpotik" datorren jendeari buruz ditugun aurre-iritzietan, mehatxurik egiten ez digutenean inori eraso egiteak erakusten duen egoera absurdoan... Beldurra askotan aipatzen bada, egin, adibidez, galdera hau: Zerk ematen digu beldur? Zer egiten dugu beldur horretaz babesteko?

**Proposamena:** Taldeari eskatu ahal diogu marrazki batzuk egitea, egoera antzeztea, etab. Ipuinaren zati bat irakurri ondoren, zereginak banatu eta taldeak irakurritako zatia antzez dezake...

#### 4 Armen erabileraren ondorioak: Bizitza paraleloak?

**Helburua:** Jendea gatazka-egoeran ala bakean bizi denean sortzen diren ikuspegi desberdinak aztertzea.

**Deskripzioa:** ikasleei eskatuko zaie etxea, eskola, familia marraztea. Ondoren, ikaskideekin konpartitu eta beste bi marrazkiekin konparatzea eskatuko zaie: beren adineko mutiko batek gerra-egoeran marraztutakoarekin (mutiko bosniar batek egindako serie bateko marrazkia da), eta estatu espainiarreko neskato batek marraztutako beste batekin.

**Orientabideak:** Batzuetan ez dugu imajinatu ere egiten gerrak nola baldintzatzen duen gure irudimena, eta noraino mugatu ahal duen gure bizitza. Bosniako mutikoaren irudian elementu harrigarriak agertzen dira. Ebaluazioa egiten hasteko, honelako galderak egin ditzakegu: Zertan dira berdinak zure marrazkia eta mutiko bosniarrearena? Eta zertan dira desberdinak? Zerk harritu zaitu gehien haren marrazkian? Zure ustez, nola sentituko zinateke haren egoeran bizi izan bazina?

#### 5 Ekintza-proposamena: Alda dezagun!

**Helburua:** Armak trukatzearen garrantziaz jabetzea. Sormena eragitea.

**Deskripzioa:** Ikasleak hiruzpalau taldetan banatuko dira, zenbat diren. Talde batek, lantegiko muntaia-katean bezala, plastilina-zati bat hartu eta taldekideak diren beste arma batzuk moldeatuko ditu. Ondoren, Robertoren istorioa irakurriko diegu, eta, amaitzeko, bakoitzari bere arma beste zerbaiten truke aldatzeko eskatuko diegu. Hezitzaileari ondo baderitzo, berriro batu daiteke taldea, figura bakarria aukeratu eta gauzatzeko. Edozein modutan, espazio bat gorde behar da gelan, azken emaitza erakusteko.



**Orientabidea:** Hasieran ez da komeni ikasleen irudimena baldintzatzea, hau edo beste iradokiz. Azken emaitza balioestea baino areago, horra ailegatzeko prozesua balioetsi behar da, armen orde egin daitezkeen trukeak irekitzen dituen posibilitateak nabarmendu behar baitira (lanpostuak, lurra...).

Anima zaitzete eskola arteko komunikazioa parte hartzen, Intermón Oxfam-en bitartez. Gure helbidea: <http://www.intermonoxfam.org/conectandomundos>. Hor aurkituko dituzu 1. zikloko lagunentzat *Munduak Elkarlotzen*-ek egindako proposamen zehatza.

Urtarrilaren 30ean, urtero, Mahatma Gandhi-ren heriotza gogoratzen dugu, eta Ez Bortizkeriaren eta Bakearen aldeko Eskola-eguna ospatzen da. Oraindik ez baduzue parte hartu, proposatzen dizuegu egun hori ospatzen duten beste hainbat ikastetxerekin bat egitea, egun hori dela-eta ekitaldiren bat gauzatzeko.

LMHko 1. zikloa

# BI BELARRI DAUZKAT HOBE TO ENTZUTEKO



Autorea: Carles Vidal

êc̃p escola de  
cultura de pau




Intermón Oxfam

1

# QURE EQUNEROKO QATAZKAK

TBn ikusten duguna...



Eskolan ikusten duguna...



## 2 ARROZ-PLATERA

Demagun...

Irla desertu batean lur hartu duzula zure adiskideekin batera.

Egun batzuk jan gabe egon ondoren, arroz-platera **ERRALDOIA** topatzen duzue. Haren inguruan eserita zaudete, eta tripak zarataka hasten zaizkizue.


Denok daukazue jateko gogo, baina koilara bakarra daukazue. **OSO HANDIA** da, arroza ahora eramateko.

Adi, prest, ja!





Behatu arretaz ondorengo marrazkiak:



Bila itzazu berdintasunak eta desberdintasunak bi marrazki horien eta zure-aren artean.

Kaixo, Roberto naiz  
eta Mozambiken bizi naiz.

Nire herriak gerra luze bat bizi izan du. Gerra amaitu  
zenean, jendeak ez zuen konfiantzarik elkarren artean,  
eta jendeak etxean ezkutatu zuen arma, badaezpada ere.  
Nire etxean ere bai, horrela seguruago sentitzen baikinen.

Orduan plan bat abiatu zen: armen trukea. Nire gurasoek zalantza  
handiak izan zituzten, gerra berriro etorriko ote zen errezeloa bai-  
tzegoen. Azkenean, ordea, ezkutuan zeukaten armaren truke,  
pikatxoa, pala eta hazi-pakete batzuk hartzea erabaki zuten.

Orain, soro bat daukagu, jaten ematen diguna,  
eta soberan dagoena azokan  
saltzen dugu.



PARTE HARTU!

